

# ALDIKO LANGILLEAK

Lantegietan bi eratako langilleak ikusten ditugu. Betiko artuak daudenak eta aldi materako artuak. Auek beti aidean bezela daude; noiz-nai bota ditezke aitziki-maitzaki. Betiko artuak daudenak, legearen aurrean askoz gordeagoak gelditzen dira, ta ezin ditezke lantegitik nolanai bota.

Arazo antan, garbi jokatu du oraintsu Auzitegi Nagusiak. Aldiko langille batzuen eskea zan bitarteko. Auek, betiko izendatuak izatea eskatzen zuten Renfe elkartean. Nagusiak eztezean zeuden. Baina Auzitegi Nagusia langilleen alde eta da.

Gai antan errez irristada egiten da ta askoren maltzurkeriak, azpian ugari jarri izan dizkie langille erukarri askori. Ederki dator, beraz, Auzitegi Nagusiaren er-bakia gai antan geiegiakeriak ebakitzeko.

☆ ☆

Sail antan bide oker esko artu izan dira, baiña guzia ontara dator beti: aldioko langilleak ezerean diru-laguntza gabe bota ditezke lantegitik; betiko langilleak ez ala. Ortik zapukeriak nagusien aldetik.

Langille aldiokoak ezin ditezke noiz-nai artu ta aldioko bezela luzaroen euki. Au da Auzitegi Nagusiak agertu duan asmoa bere erabakia ematekoan. Uste gabeko ta denbora gutxiaroko langille geiagoren premia sortzen denean, zerbitu egin bearra dago ta ordutan aldi gutxiaroko artu ditezke onelako langilleak. Baina lantegia goraka badijoa ta langille premia geitzen badijoa, zuzen diren langilleak ezin ditezke aldioko bakarrik artu, betirako baizik. Bestela, bi eratako langilleak geldituko lirake, lan berdira egina: batzuek betiko langille bezela eskubide guzietan; eta besteak aldioko bezela, ta beti nagusiaren maltzurkeriaz ezerean laguntza gabe lantegitik botatzeko arriskuan bizi diranak.

☆ ☆

Legez garbi daude gauzak, baiña langillearen ezjakitak eta nagusien zapukeriak, maiz bildurpen euki izan ditu langille erukarri asko. Izan dira antan, bein baiño gelagotan izendatu ditugun txakurkeriak. Ala ikusi izan dira nagusiak, lanik-eza zutela ta langilleak lantegitik bialtzen. Eta andik pixka batera, langille aldioko bezela beste batzuek artzen. Egin izan dute ere, beste maltzurkeri au: langilleak aldioko denbora bete baiño lantegia, Asegurutatik kendu. Ta andik pixka batera berriro langille aldioko bezela artu. Au guzi au, nagusiak langillea errezago bota alizateko asmaturik izan dira. Ta onela euki izan dituzte amabi, amabost eta ogei urtean ere langilleak.

☆ ☆

Egoera oiek nolako kalteak dakartzkieten langille gizajo askorik Egan bearra al-dago?... Onela gutxiak zaizkie langille erukarriet diru-laguntzak; onela euki izan dituzte lan geiegi eraginaz, bildurpen. Onela irau dute bere bizian betiko arriskuan, utsagatik lantegitik botako ote dituzten bildurrez.

Orregatik komeni da egoera guziak garbitzea lenbaitlen. Denak izan dezatela legearen aurrean bear dan berditasuna. Kontu illun guziki auzitara eramanez, argitu bear lirake, emendik aurrera langille guziak tratu berdira izan dezaten lantegietan. Ta norbit oker badabil, jakin dezala legez etzuala bere jokara ontzat ematen.

## KEZKAK

# GAURKO PEKATUA

Errespetu audienetako dion illargirako bidea iriki duten jakintsu eta bertara joan diran gizonak.

Baian iruditzen zait eskritore naizen aldetik ba de-

ten da. Bi itzez bukatzen da: ALKAR ZAPALZTEA.

Baina, zer da ori? Dijoenes zarra, krisailua eskuan, eguerdiko eguzkitan gizon-bila irten omen zan aspaldi. Alaxe irten bearko genduke. Eta ez genduke inor aurkituko.

Ziur nago. Ez genduke inor aurkituko, baletz esango ligukenik. Bai zera! Inork ez dugu besterik zapaltzen... Inork inori ez diogu kalterik egiten...

Lagun urkoa zapaltzen duela airtortzen duenik, inor ez. Ortan ziur nago. A, baina, alderantzizkorik? Eundaka, milaka, danak. Batere zanolantzarik gabe, danok. Bai, danok artzen ditugu kalte asko bestek eginda.

Izenda ditzadan zapalketa batzuk. Bada ez bada ere. Norbaitek bere-nik bere bururik azeratu nai balu. Norbaitek, bat bakarrak bederen airtortu nai balu ere, bera errundun dala zerbaitean.

Gaurko, izendatu besterik ez. Ea Beste jardunen batzuetan sakanago astintzen ditugun zapalketa oiek baina, bakoizka artu-ta.

Morrioiak, erukarriak, gizagajok! Baserriketako eta kalekoak, atezaiak, aundizkien txoferrak, eta abar. Txanpon batzuk ematen zaizkiela; gainontzean, atariko zakurraren antzeratuan, nagusien mendeko.

Eta neskaek, ainbeste eratako neska ta serbitzariek. Diru-bearren aurkitzen beste erurrik gabe, ta dirudunen gutzi guztiak betetzera beartu-ta.

Lantegietako langilleak nola aurkitzen dira? Nun sartu, zer lan egin, nola eta noiz egin lana, zer sari? Dana bestek erabakita. Ezertan sarbiderik ez, ezerean eskubiderik ez, zerbitu erabakitzeoan aintzatzotat artu gabe... Langile bizia, beste makina bat geiago bezelaxe, Okerrago, makinaren morroi. Ez al da zapalduarik aurkitzea?

Baserritarra... Alde guztietan ez-jakintza, basatiztat, parregarritzat artzen dute. Eta danek, nundik zer kenduko dioten, nundik peatuko dioten.

Eta... baserritarren aldeko izan bear duten alkatetean ere, ez dituzte aintzatzotat artzen. «Bi edo iru ez-jakin gizagajok erabakitzeo utzi bear al dugu gure alkatetean etorkizuna?» Illabete asko ez dirala esandako itzak.

Eta nor erabaki bear ditu, bada, baserritarren arazoak? Dirurik geiena daukanak? Baserritarret laguntzen dieten izenean, lan-saririk audienak jasotzen dituztenek?

Ederki. Gizakiak ez dira ezertaroko. Dirua nagusi. Dirua daukanak, dirua jartzen duenak edo jasotzen duenak, ark du arrazoi, ark du itza.

Ederki. Zorigaitzoz, ez dugu beste-rik ikusten.

Nekazari-alkarte batean gertatua. Bi eskualde edo probintzitan zabaldu-rik dagon alkarte. Talde aundia da izena emanik daukana. Billera bat egin bear zuten. Ez da aspaldiko gauza.

Alkarte ortan izena emandako eta diru-apurkak jarritako guztiak zuten eskubide billerara agerteko. Baina, dan-danak biltzen baldin baziran, nola lurtu-erazi izaki?

Zertan ibili dan-danak biltzen? Probintzi batean al zan billera? Beste probintzioko «boletin»-ean zabaldu berria. Onela inork ezer esaterik ez. Gutxi jakingo zutela? Obe. Beste gutxi eta bakar batzuek izatek ezan, baina bezeran eta ixilka.

Gainerako guztiak? Ixol Or kon-pon!

Nun dira eskubideak? Nun da ber-dintasuna?

Ez-jakinak dirala? Atzeraturik da-goiala nekazariak? Berriz ere egon bearko dute, onelako azpi-jokuak egiten zaizkien bitartean! Ori ote da esneratzeko bidea? Etez esango nuke.

Zer da ajolazkoena? Zer da gar-rantzizkoa? Zure ta nere dirua, ala baserritar, langile, neska, morroi ez-jakin eta gizagajo ori?

Jokabide auek guztiak ez baldin badira ALKAR ZAPALZTEA, ez dago munduan eta ezta illargi'n ere, ez dago alkarren zapalzetarik. Ez dago munduan okerrik, ez dago pekatu-rik, ori ez baldin bada zapalketa, ori ez baldin bada gaurko pekatua.

GAZTAÑAGA'K

## Tomás Eizmendi'ren Jatetxea

Zumai erriatik metro gutxi-ira, ibel ertzean par-irriz, etxe polli bat zure zal dago eskualde kutsu zoragarritz. Arrei, barazki, aragi eder; jatetxe anta sukera janariz, natetxe au bein probatzen [duna] laister azaltzen da berriz.

RESTAURANTE TOMÁS EIZMENDI  
Curva de «Chiquil-ordi»  
Tel. 86-13-90 ZUMAYA

# Eddy Merckx eta Sylvere Maes

Lerro hauek idazten ditudan momentuan, ez dakit Merckx'ek Frantziako Ingurua irabazi ote duenetz. Egun gutxi falta da jakin de-gazun, halare; eta garazaitzetat jo ditzuke.

Hau dala-ta, eta bidezko danez, amiti adizkaritan ageritu da gogo-eta berbera: Belgika'k ez zuen "Tour" dalakoa 1939 ezkeroztik irabazi: urte hartan Sylvere Maes'ek garaitu zuen 30 minutu Vietto'ren aurretik. Belgikarrek milaka abiaturko dira datorren larunbatean "Parc des Princes" aldera bere txapelidun berria txalotzera. Lehen-dabiziko tren berezia iragarrita se-guituan bete da!

Frantziako Inguruak, ongi da —eta irakurlesk nik bezin ongi daki— bere alderdi txarra ilabetean barenna Europa'ko herriek (Euskal Herria'n, eta Erdal Herrietan gau-za bera...) arazo guziak alde bate-ra uzten bide dituzte; eta txirrin-dularien gorabeheretan jartzen bi-de dute arreta guzia. Berez kirol bat besterik ez zana, hortara, txirrin-dularientzako dirubide bihurtu da (Europa'n bai, beste tokitan ez be-ti: Bolibia'ko Ingurua, gonbarazio baterako, diru-saririk gabe jokaten omen da; eta jarraitzaientzako, be-lebistaren bidez edo prentsaren bi-dez jarraitzaile diranentzako diot, alienazio nabarmen bat bihurtu da. Robic'ek aste hauetazten eman duen argibide itusua ez da izan kontra-koa...

Herri xeheargandik besterik itzarotea, halare, ez ote da utopia bat?

Ez noa, halaz ta guztiz ere, alde hortatik jotzera nere huntan: kriti-ka hori bestek egingo dute nere ordez (dagoeneko egin ez badute be-deren...). Eta nik beste ikuspuntu bat agergerazi nahi dut nere artiku-lu huntan. Alega, Frantziako In-gururak ba duela askorentzat (nahi ez badugu ere, urte koloregabe eta

legunen aztarna besterik ez bada ere) urrutiki-kutsu guzi gogo bat; eta urte bakoizari kanta igarokor bat ohi dagoen bezelaxe, agoraren bihotzetan, eta neurean ere bai, aspaldiko txirrin-dularien izenek eta gorabeherak ba dakartela beti joan-dako urtean urrin bitxia.

Merckx'en arakastek, horrela, neuri eta beste askori eskierki, ge-rra nagusiaren aurreko giroa dakar-rikigute sailhetste. Merckx'en bi-dez, René Vietto, Gino Bartali, Guy Lapébie, Sylvere eta Romain Maes, Tiéhard, Trucba, eta garai urrun huetako txapelidunak agertzen dira. Eta hauekin arras loturik, urte ha-ietako haurtzaroko oroitzapen ahi-tuak. Neretzako, esate, baterako, Sylvere Maes'en izena zeharo lotu-ta dago Ondarreta'ko ondartzare-kin: Frantziar'n hiru urtez egondere-ko adiskideak eta lehengusuek, be-rriki etxeraturik, erakutsi ziguten "Tour" dalakoa zer zan. Ez genuen orduan ulertu haien frantsesastu-nak zer adierazten zuten...

Frantziako Inguruak, hortara, urtean inguraren azkarra nabarme-nerazten du miloi usokoren kizi-tzentzian; gauza agria baita txirrin-dularien ospe gaiztak urte gu-xtitan ez duela ia azzararik ere uzten. Brusela'ko Gare du Nord'en ondoan ba zegoen, hain zuzen, oso gutxi arte (bera hil arte), bizikleta bat ezagurarti, Maes famaturien trabena apal eta ez-ezaguna. Nola uka hunen ikuspenuk erruz penisa-razten zuela?

Eta nik ez dut uste konturatzte edo oharerra huneke butere kalte egi-ten duenik, nahiz askotan oso agi-rikoak ez izan. Garai bakoitzak, he-rriki bakoitzak, pertsona bakoitzak i-zia, bere jainkoak ditu; eta jainko-sistema horrek ez du besterentzako ez baiorik ez itzulpenik. Estruktura-lismoan gaude bete-betean. Mit-toek jarraitu egiten diote alkarki.

multzotan; baina gaurko mitoa ez dituzte biharkoek desegingo, uxatu-ko baizik. Ez dago funts aldaikai-tzik: "konnotazioa" beti da desber-dina. Bartali eta Merckx bi aroren lekuko dira, bi biziera-urteren idar-koizazioa, bi mugarri belauen se-gidunak.

Orain 40 urte dituztenek, gogo-tiago irakurtzen dituzte "Orain da-la 30 Urte" saillean Sylvere Maes-en eginak, gaurko Merckx'enaq bai-zen; eta gehiago dutenek, gogotia-gi irakurriko lituzteke Franz'enaq, Ledu'enaq, Botche'arenak edo Thy's'enaq... Bizi legea da.

Ez dakit nik hau zertan izan di-tekoen guztiz kaltegarri, gizonaren kakaoren irudi garbi bat ematen baitzigu kirolaren hizkeran: danok gera geure aldiaren eta geure kon-daira-zertzeladen seme eta jopu. Bi-dezkoena eta jatorrena ausarki ai-tortzea litzake.

Nekez egin ohi dugu, ordea. On-dikotz!

LARRESORO

**Zeruko Argia**

Zuzendaria:  
**ANTONIO ITURRIA ASTIAZARAN**  
 Naparroko-Kantauriko ta Ara-goiko Keputurkinoak argitaratua  
 (Carlos III, 22. Pamplona)

ONOSTIA'N:  
 Oquendo, 22. Telf. 26666

ARPEDE SARIA:  
 Dietekoa ..... 190 Pta.  
 Arretetan ..... 265

Aldoz artu nai bada, galdetu.